

MEXIKO 68KO SARRASKI ZENBATEZINA



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazustabarrena

Mexiko Hiria, 1968ko urriaren 2an. Neurri demokratikoak eskatzen zituen ikasle mugimenduak deituta, jendetza bildu zen Hiru Kulturen plazan. Hamar egun geroago Joko Olinpikoak hasiko ziren hirian bertan eta uztailan piztutako mugimenduak kirol ekitaldia baliatu nahi zuen gobernuaren abusuen berri mundu osoan zabaltzeko. Hauxe zen haien kontsignetako bat: “Ez dugu joko olinpikorik nahi, iraultza nahi dugu”. Gobernuak, aldiz, mundu guztia Mexikora begira egongo zela jakinik, Jokoen distira zikin zezakeen edozein orban garbitzea zuen helburu. Eta arratsalde horretan bertan ekin zioten horri.

18:10ak aldera armada eta Olinpia Batailoia izeneko frankotiratzaile talde paramilitarra tiroka hasi ziren plazan bildutako milaka manifestarien aurka. 500dik gora pertsona atxilotu zituzten eta hil, dozenaka eta dozenaka.

Biharamunean, Mexikoko hainbat egunkarik manifestariak “terroristatzat” jo zituzten eta Mexikoren “irudia zikintzeko eta jokoak zapuzteko” ahallegina leporatu zieten. Errepublikako Lehendakariak adierazi zuen “operazioari esker arazoa eragin zuen asaldura itzali” zutela eta Joko Olinpikoetan “lasaitasuna bermatuta” zegoela.

Horrenbestez, urriaren 12an jokoak inauguratu zituzten, Gustavo Díaz Or-



Mexikoko armadako soldaduak 1968ko urriaren 2an, Hiru Kulturen plazako sarraskiaren ondoren. Handik hamar egunera hasi ziren Mexiko Hiriko Joko Olinpikoak.


MEGALOPOLIS MX

daz presidentea buru zuen ekitaldian, eta *Bakearen Joko Olinpikoak* izendatu zituzten, lotsagorritu gabe.

Urriaren 27an amaitu ziren jokoak. 112 herrialdetako 5.516 atletek parte hartu zuten (4.735 gizonezkoak eta 781 emakumeak) 20 kiroleko 172 probatan. Jokoen zenbakirik nabarmenenak Bob Beamonen jauziaren 8,90 metroak izan ziren ziurrenik; luzera jauziko munduko errekor hura 22 urte eta 10 hilabetez egon zen indarrean. Baina irudi nagusia Tommie Smith eta John Carlosena izan zen; 200 metrotako urrezko eta brontzezko dominak jaso zituzten korrikalariak, hurrenez hurren. Dominak jasotzeko ekitaldian, eskularru beltza jantzita

eta ukabila jasota, *black power* keinua egin zuten. Argazki horrek Smithen marka ahaztarazi bazuen ere, zenbakiak hor daude: 19,83 segundoko denborari esker, berak zeukan munduko marka hautsi zuen berriro eta errekorra Pietro Mennea kenduko zion 11 urte geroago.

Urriaren 2ko sarraskian hildakoen zenbakia, ordea, ez dago jakiterik. Gobernuaren bertsio ofizialak esan zuen 20 izan zirela. Hiru urte geroago, hildako baten amak esan zuen semearen gorpua topatu zuen tokian soilik 65 gorpu baino gehiago zeudela. Ikerketa batek dio 250 inguru izan zirela, beste batek 325... Kalkulu handienaren arabera, 1.500 pertsona inguru hil zituzten. ■



CRAIG FOSTER

Gizakiak egindako marrazkirik zaharrena

Hegoafrikako Blombos kobazuloan silikreta harrian okrez egindako marra batzuk aurkitu dituzte. Christopher Henshilwood eta Karen van Niekerk buru dituen ikerketa taldeak *Nature* aldizkarian jakinarazi duenez, marrazkia duela 73.000 urtekoa da. Adituek orain-tsu arte uste zuten lehen giza adierazpen sinbolikoak European sortu zirela duela

40.000 urte, baina marrazki hau orain arte aurkitutako antzeko arrastoak baino 30.000 urte zaharragoa da. Oraindik ez dakite nola eta zertarako egin zituzten marra horiek. Uste dute konposizio handiago baten zatia dela, eta traola itxura du. Hala, inoiz aurkitutako marrazkirik zaharrenak, teknologia berriei estuki lotutako ikurra ematen du. ■